

ERMUKO LABADEROAK

Gaur egun kontserbatzen ez badira ere, Ermuko labaderoek garrantzia handia izango zuten Ermuko eguneroko bizitzan, eta are gehiago herriko emakumeenetan, beraiek izango baitziren, hilean behin gutxi gora-behera, arropa garbitzeko egun oso bat erabiliko zutenak, udan eguzkipean, eta neguan erdi izoztutako urarekin. Gehiengoak egin beharreko lan honek asko batuko zituen emakumeak, aisialdirako, eta beren bizitza soziala garatzeko denbora gutxi zuten garai batean, sozializatzeko eremu bilakatuko zirelarik.



Izelaietako labaderoa

AURREKARIAK:

XIX.mende hasieran eraikiko ziren labaderoak Espainia osoan, ordura arte are gogorragoa izango zena, eta erreka eta baserrietako asketan egingo zena nagusiki. Gerora ere, baserri inguruetan batez ere, eredu honekin jarraituko zuten, labaderoak urrun geratzen baitzitzaizkien, baina ez ala hiriguneetan, non 50 biztanletik gorako herri oro labadero eske hasi baitzen mende berriaren hasieran. 1820-1830 tartean hasi ziren lehenengo labaderoak eraikitzen, arrazionalismoaren mendeak eskatutako bizi kalitatearen hobekuntza saiakeren testuinguruan. Etxean ura izatea aberatsenek zuten luxu bat zen garai batean, labaderoak ezinbestekoak izango ziren, eta badago errekek garbi mantentzeko helburuarekin burutu zituztela esaten duenik ere¹. Baju xamarrak izango ziren lehenengo labadero publiko hauek, arropa makurtuta garbitzea eskatzen zutenak. XIX. mende erdialdearako altuagoak egiten hasiko ziren, zutik garbitzea

¹ 1781eko Concejo de Apellaniz-eko (Araba) debeku batek adierazten digu hau:

“Que ninguna persona tenga atrevimiento de lavar ropa, madejas, vientre de reses ni otra cosa inmundada desde donde llamamos el gazarro o bebedero de Goycara hasta el emboque de las aguas que bajan por la calle a introducirse en el cerrado de Patrón de las Obras Pías de Margarita, porque de permitirlo se sigue que cada vecino quiere tener en la puerta de su casa lavadero de ropa...”

(Manriquez, M.P; Aberdi M.J. (2000) *“Lavaderos: espacio público, genérico, de trabajo, de relaciones interpersonales”* Donostia: Biblid, 303 orria).

baimenduz. Esan beharra dago Ermuan eztitugula labaderoak topatuko XIX.mendearen bigarren erdira arte, garai honetako herriaren modernizatze saioan eraikiko zirelarik gehienak.

GARBIKETA PROZESUA:

Labaderoen funtzioa erropa garbiketa burutzea izango zen, eskatzen zuen lana zela eta, gutxi gora-behera hilean behin egingo zuten lan bat, egun oso batekoa izango zena. Hilabete osoan zehar familia osoaren arropak pilatzen joango ziren, nahikoa izandakoan labaderora joanez. Garbitzeko metodo ezberdinak erabiliko zituzten koloreko eta zurientzat: Kolorekoak zuzenean labaderoan garbituko zituzten, etxean sosa kaustikoa eta animalia grasarekin egindako jaboia erabiliz horretarako. Labaderoaren zati batean (labaderoak bi baldin bazituen, ez baitzen ala denetan, gero esplikatuko dudan moduan) arropa busti eta jaboituz, gero eguzkitan lehortzen utzi, eta azkenik labaderoaren beste zatian aklatatuz.

Zuriak garbitzea berriz konplikatuagoa izango zen, noizean behin zuritu egin behar baitziren, eta hau prozesu arrikutsua eta zenbaiten artean egin beharrekoa izango baitzen: Ur beroa eta errautsak erabiliko zituzten honetarako, eta baita kuba bat eta pertz bat ere: Lehenengo kuban (egurrezko barrika antzeko bat) jarriko zen arropa, jada erdi bustia. Oihal batez estali, eta gainean sutondotik ateratako errautsak jarriko ziren, dituzten gatz alkalinoengatik zuriketa prozesurako egokiak. Kubaren pean pertz-a erraziko zen (lapiko handi moduko bat) eta ura, ia irakiten, botako zen errautsen gainera, ur hau oihalean zehar filtratu, arropa busti, eta pertzera eroriko zelarik. Prozesu hau behin eta berriro errepikatuko zen arropa zuritzea lortu arte, gero lehortzen utzi eta azkenik labaderoan aklatatu arte.

Lana horren neketsua zen, eta horren kondizio kaxkarretan burutzen zen, gaixoketak erraz emango zirela emakumeen artean garbiketa egin ondoren, batez ere neguan, menditik zetorren ur hotzetan garbitu behar zutenean arropa. Garbiketarako izan beharreko posturek ere, (makurtuta edo gerria okertuta) bizkarreko arazoak ekarriko zituzten emakumeentzat. Guzti honen isla dugu XIX.mendeko eskuliburu bat, garbiketan sortutako oinazeak (zartadurak eskuetan, reuma, ospelak...) sendatzeko trukoak ematen dituen². Eskatzen zuen indarra ere handia izango zen, gizonek beste zenbait lan egiteko behar zutena bezainbestekoa, beraz, emakumeek burutzea lan hau ez zela indar kontua ikus dezakegu.

Emakume aberatsenek herriko beste emakume batzuk kontratatuko zituztela beren partez lan hau egin zezaten, profesioz labanderak zirenak existituko zirelarik. Horrela, garaian, lan egiten zuten emakumeak bazeudela ikusiko dugu, eta uste duguna baino gehiago zirela.

LABADEROEN ESTRUKTURA:

Labaderoak berak, eraikitzeke zegoen aurrekontuaren arabera, konplexutasun handiagoa edo txikiagoa izango zuten, eta baita zegoen beharraren arabera ere. Esan beharra dago, denboran aurrera egin ahala, geroz eta konplexuagoak izango zirela.

² Manriquez, M.P; Aberdi M.J. (2000) "*Lavaderos: espacio público, genérico, de trabajo, de relaciones interpersonales*" Donostia: Biblid, 304 orria.

Gehienek bi zati izango zituzten: Batetik, goiko aldea, normalean txikiagoa, arropa aklaratzeko erabiliko zena, eta iturri bat izango zuena labaderoa urez betetzeko. Bestetik, beheko aldea, arropa garbiketa prozesua egiteko erabiliko zena, eta behean kokatuta zegoena. Behean kokatzearen helburua, akclaratzeko ura ez zikintzea zen. Luxurik handieneko labaderoak estaliak izango ziren, eta beste zenbait berriz estali gabeak. Batzuk labadero ertza, arropa xabotzeko eta mantxak kentzen laguntzeko erabiliko zena, lerroduna izango zuten, garbiketa prozesua errazteko. Beste zenbait berriz juxtu juxtu aska moduko bat izango ziren, arropa garbitzeko nahikoa.

Ur bideetatik gertu kokatuta egongo ziren labaderoak normalean, ura bertara eramatea erraztuz. Ermukoen kasuan ere ala zela ikusiko dugu: Izelaietako labaderoaren kasuan adibidez, Abeletxe baserriko soloetatik eta Otaerre basotik behera zetorren ura bilduko zuen, iturri bat ere egongo zelarik ur hau bera aprobetxatzen zuena.

Errebalburukoaren kasuan berriz, hemen ere ura bazegoela eta indar dezenterekin zetorrela ikusiko dugu, gerora errota bat eraikiko baitzen hemen, Mallaerrota, eta baita ur indarra aprobetxatuko zuen tailer bat ere, XX.mendean.

Palaziokoaren kasuan, Ego erre kara zihoan errekatxo bat aprobetxatuko zuen, gerora desbideratu egingo zena, baina garaian indarra zuena. Esan beharra dago, orokorrean, Ermuko labaderoak konplexutasun txikikoak izango zirela.

ERMUKO LABADEROAK:

Aipatu bezala, hiru labadero existituko ziren Ermuan: Palaziokoa, Izelaietakoa eta Errebalburukoa. Palaziokoa izango zen zaharrena, baina aldi berean luxuzkoena: Estalia izango zen. Ez dakigu palazioaren eraikuntzarekin batera burutuko zen (1760an) edo geroagokoa izango zen, baina edozein modutan ere, zaharrena bera izango dugu.

Izelaietakoa askozaz xumeagoa izango zen, 1884an eraikia, herriaren modernizazio prozesuaren baitan. Ez zen estalia izango, eta ez zituen arropa akclaratzeko eta xabotzeko bi alde izango, bakarra baizik.

Errebalburukoaren inguruan berriz ezer gutxi dakigu, Mallerrota gainean zegoela, gaur egun Probalekuko garaje an dauden inguruan jakiteaz gain. Dirudienez xume xamarra izango zen, eta 1893 inguruan eraikia, hau ere modernizazio prozesuaren barruan.

Hau ez gain, Ermuko jendeak, gertutasunagatik, beste hiru ere erabiliko zituela badakigu: Sallabentekoa, Eitzagakoa eta Olaerreagakoa, denak ere Zaldibarkoak. Eitzagoakoa izango zen xumeena, harri puska bat, garbiketarako egokitua baino ez zelarik izango.

LABADEROEN DESAGERPENA:

Labaderoen urrezko aroa ura etxeetara iritsi arte izango zen, gerora, geroz eta gutxiago erabiliko zituztelarik labaderoak. Labadoraren sarrerarekin etxeetan (1901ean asmatu bazen ere, etxeetara, orokorrean, ez zena iritsiko 60eko hamarkadara arte, edo geroago) guztiz utziko ziren alde batera.

Ermuan 1911an ezarriko zen lehen aldiz ura etxeetan, Francisco Izagirren alkatearen eskutik, baina labaderoen erabilpenak oraindik jarraipen bat izango zuen denbora luzez. Oraindik ere, herriko nagusiek gogoratzen dute labaderoen erabilpena, beraiek ez baziren, beren gurasoen aldetik, gogoratzen dutelarik.

Herriko hiru labaderoak desagertuta daude gaur egun, botata, beraien egoera txarra zela eta, edo modernizazio prozesuren baten barruan, gure memoriaren zati hau galdu egin delarik. Izelaietako labaderoak esaterako 1980an bota zen, gaur egun bere partez graffiti bat dugularik non zegoen eta nolakoa zen erakusten diguna.

BIBLIOGRAFIA:

- Aranberri, F. (2001) *"Ermua-Eitzaga Leku-Izenak. Geure lzanaren barrena"*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Asensio Posadas M.T. (2007) *"La colada tradicional y el lavado a mano"*. Cuadernos del Baile de San Roque: revista de etnología. Zenb. 20, 11-22 orriak,
- Manriquez, M.P; Aberdi M.J. (2000) *"Lavaderos: espacio público, genérico, de trabajo, de relaciones interpersonales"* Donostia: Biblid.

AUTOREA:

Maddalen Zabaleta.